

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK



KOMUNIKAZIO BIDEAK

Hasteko, web orri bat garatzea gustatuko litzaiguke. Ezinbestekoa izango da ingurune digitalean ongi kokatzeko. Negozioaren beraren luzapen gisa funtzionatuko du, eta aldi berean, aukera emango du bezero gehiagok zerbitzua ezagutu dezaten.

Horrez gain, sare sozialetan kontu bat sortuko dugu, enpresaren eta bezeroen, kasu honetan agureen familien arteko noranzko biko komunikazioa errazten duten kanalak direlako. Baina, era berean, bezeroaren arreta bat eskainiko dugu telefonoz, agureei informazioa edo erantzunak errazteko, era guztietako zalantzak argitzeko eta haiekin harreman hurbilagoa lortzeko. Horrela, bezeroa komunitate bateko kide sentituko da, eta proiektuaren harrera izango du.

Gainera, instagram kontu bat irekitzeko asmoa dugu, @ElkarrekinSA deituko dena. Horrela, bezeroak web-aren eta telefono zenbakia izan arren, gurekin harremanetan jartzeko beste modu batzuk edukiko dituzte.

Sare sozialak eta web orria alde batera utzita, gure bulegoan hainbat bilera ere antolatuko ditugu. Internetetik gure enpresaren informazioa aurkitu ahal izango da baina bileretan informazio zabalagoa eskainiko dugu eta gainera zalantzak pertsonalki konpondu ahal izango ditugu.



Gainera, hirugarren adineko pertsona gehienek ez dituzte sare sozialik eta gurengan etortzea zalantzak argitzeko irtenbide errazagoa eta erosoagoa gertatuko zaie.

Laburbilduz, sare sozialak aiton-amonen familiekin harremana izateko erabiliko ditugu eta telefonoa edota bilerak agureei bideratuta egongo dira gehiengo batean.

BANAKETA BIDEAK

Gure zerbitzua kontratatzeko modu bakarra pertsonalki egitea da. Hau da, ez dugunez produktu zehatz bat produzitzen ezin dugu internet erabili gure zerbitzua saltzeko, hala ere, Internet-a informazioa eskaintzeko tresna erabilgarri bat izango da. Leioan dagoen Sabino Arana kalean dugu kokatuta gure bulegoa, bertan aurrera eramango ditugu gure zerbitzua kontratatzeko behar diren prozedura guztiak.

Horregatik, gure enpresak ematen duen zerbitzua pertsonalki eskaintzen dugu, gure bulegoan, laurak batera lan egiten dugun lekuan. Han sortu ahal diren zalantza guztiak guk pertsonalki azalduko ditugu eta bulegoan bertan gure zerbitzua kontratatu ahalko da.